**JON ANDONI ASPURU, ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESARIEN AENKOMERREKO PRESIDENTEA**

Jon Andoni Aspuruk 14 urte daramatza AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresarien zuzendaritzan. AENKOMERek definitutako l**an-ildoak orientazio argia ematen dio hiri-inguruneetan kokatutako zerbitzu-sektoreko merkatariari, ostalariari eta/edo enpresaburuari**, eta zuzeneko lanaren eta hainbat eragilerekiko lankidetzaren aldeko apustua egiten du.

Jon Andoni da proiektu honen burua:

- **Sektorearen ordezkaritza**, erakundeen aurrean eta hitzarmen kolektiboen negoziazioaren bidez, gure nortasun-ezaugarrietako bat, patronala den aldetik.

- **Lankidetza eta baterako lana**, AENKOMERen izaera bateratzailea sustatuz, bai sektorearen beraren barruan, bai sektorearekin harremana duten eragileekin. Ildo horretan, azpimarratzekoa da azken bi urteetan AENKOMERen hiru elkarte berri sartu direla: OLBE bidaia-agentzien elkartea, Arabako ostalaritza-elkarte bat eta azken zerbitzu-elkarte bat, hiri-inguruneetan kokatutako jarduera-azpisektore guztien arteko sinergiak bilatuz.

- **Errealitate komertziala ezagutzea**, sektorearekin harreman zuzena edukiz eta hura ordezkatzen duten eragileekin aldizka harremanetan jarriz.

- **Bezeroak fidelizatzea**, Arabako Merkataritza Txartela proiektua bezalako ekimenen eta aldizka antolatzen diren beste batzuen bidez.

- **Erosketa-esperientziaren lana**, Hobeki Saltokiak programaren bidez, gure merkataritza-trebetasunak, emandako zerbitzua, online estrategia, gure negozioen kudeaketa eta gure aktibo handiena hobetzeko programa espezifikoa: gure lantaldeak.

- **Prestakuntza** programa tutorizatuen, digitalizazio-tresnen eta berariazko aholkularitza-zerbitzuen edo gero eta premia gehiagori erantzuteko erabiltzen dugun enplegu-poltsaren bidezko gaikuntza edo ekintzailetza.